



AGENDA 2030

2021-2022 lehen proposamenak eta konpromisoak

Ikastetxea: San Lorenzo Eskola

Maila: Lehen Hezkuntza

ARGIBIDEAK:

Aurtengo ikasturtean San Lorenzo ikastetxeko LH-ko ikasleek, Agenda 30eko

15. helburuarekin lotuta (LEHORREKO EKOSISTEMAK), eskolatik hurbil

dituzten berdeguneak aztertu dituzte, hain zuzen, **Gipuzkoa Etorbideko**

jardinerak eta autopista ondoko parkea.

Proiektu hau lantzerakoan honako helburu hauek markatu genituen:

- LH-ko ikasleek, bere bizileku hurbilean dituzten berdeguneak ezagutzea eta hauen diagnostikoa egitea (zeintzu diren, zer dagoen bertan – landareak identifikatu-, zein egoeratan dauden berdegune hauek)
- Diagnostikoaren ONDORIOAK atera eta ondorioetatik abiatuz, Udalari hobekuntzarako proposamenak egitea. Baita ikas-komunitate bezala espazio hauek zaintzeko konpromisoa hartzea ere.

DIAGNOSTIKOAREN ONDORIOAK.

Honako ondorio hauek atera genituen diagnostikoaren ondoren.

ONDORIOAK: Autopista ondoko parkea

Parke honetan belardi bat dago jardinerazabalen barruan eta metro erdi inguruko altueran. Ez da egokia pertsonen erabilerarako.

Landare gutxi daude gune honetan, baina daudenak egoera onean ikusten dira.

Jardinerazabarruko belardian txakur kaka ugari aurkitu dira.
Zorua garbi dago.

ONDORIOAK: Gipuzkoa Etorbideko jardinerak

Gipuzkoa Etorbideko jardineretan, batez ere zuhaixkak daude. Zuhaitz eta belar-landare gutxi daude (lilipa, tulipan eta iazintoren bat edo beste)

Bertan landatutako espezie gehienak kanpokoak dira, bertako espezie oso gutxi daude (madariondo, aranondo eta gorostiren bat edo beste)

Landareak, orokorrean ondo zainduta daude, batez ere zuhaixkak: moztuta eta txukunduta (ez kasu guztietan)

Jardinera gehienak landarez ondo hornituta daude, baina badaude landararik gabeko hutsuneak.

Jardineretako lurra ez dago landuta eta aireztatuta. Gogortuta eta berdinez estalita agertzen da toki askotan.

Jardinerak zikin ikusten dira: zaborra dago eta batez ere txakur kaka ugari aurkitu dira (txakurren kaka-lekua ematen du)

Ondorio hauetatik abiatuz Udalarari honako proposamen hauek egitea adostu dugu.

PROPOSAMEN ZERRENDAA

1. San Lorenzo auzo inguruko (Gipuzkoa Etorbidea, Errotabarri Plaza, eskola ondoko parkea ...) gune berdeak eguneratzea:
 - Behar diren landaketa berriak egitea eta hutsik dauden espazioak landatzea.
 - Gune berde hauetan, posible balitz, bertoko espezieak ere landatzea.
 - Espazio hauetako lurra lantzea: oxigenatu, berritu, garbitu...
 - Espazio hauek txukun eta garbi mantentzea.
 - Sasoiko landareak ere landatzea (loreak)
2. Txakurren kaka ugari agertzen direlako gune hauetan, proposamen hauek egiten ditugu:

- Txakurrentzako espazio edo guneren bat egokitzea inguru honetan, berdegune hauek garbi mantendu ahal izateko.
 - Txakur kakak gune berdeetatik desager daitezen, KARTEL HEZKARRIK , eta ez debekatzaileak jartzea gune hauetan.
3. Udalak antolatzen dituen Ingurumen Tailerren barruan, proposatzen dugu **eskola-umeentzako natura-ibilbideak antolatzea**, herri inguruan dituzten natur-gune eta espazio esanguratsuak ezagutu, baloratu, disfrutatu eta zaintzeko.
- Sensibilizazio fasean konturatu ginen, ikasle gehienak ez zituztela ezagutzen Ermua herriko espazio naturall esanguratsuak, besteak beste, basoak, mendiak, errekek... Horregatik pentsatzen dugu, datorren ikasturtera begira, umeentzako natura-ibilbide hauek antolatzea garrantzitsua izango litzatekela.
4. Ikastetxeko berdegunea garbitu, desinfektatu eta umeek erabiltzeko espazio natural bezala egokitu.

KONPROMISOAK

1. Ikastetxeko gune berdeetako landareak zainduko ditugu
2. Auzoko zein herriko gune berdeak errespetatuko ditugu, garbi, txukun eta politak egon daitezen.
3. Familiak eta lagun/ezagunak konpromiso hauetan inplikatzeko ahaleginduko gara.
4. Udalak antolatuko lituzkeen natura ibilbideetan parte hartzea.

PROPOSAMENAK

- Gure eskola inguruan dauden basoak aztertzen ibili gara eta ikusi dugunez, pinuen mozketak egin dira. Gure proposamena hauxe izango zen: zuhaitz autoktonoen landaketa bultzatzea basoen jabeei.; hori bai, hauei diru laguntzak emanaz.
- Oso garrantzitsua izango zen ere txorientzako kabitxoak jartzea herrian zehar. Honela txori espezie batzuk ingurune naturalaren hondatzearen ondorioz, habia egiteko aukera izango dute.
- Berdegune gero eta gutxiagoak daudela gure herrian ikusi ondoren, beharrezkoa iruditzen zaigu berriak sortzea, beraz, beste proposamen bat hau da: Beti-Ondoko aldagelen lekuan (hauek bota ondoren) berdegune berri bat sortzea zuhaitz eta landare autoktonoak landatuz.
- Udaletxeak sortu zuen hiriko zuhaitzen gida erabili dugu gaia lantzeko eta gure herrian daudenak aztertu ditugu. Ikusi dugunez, berdeguneak eta lora gunek aldatu egin dira eta beharrezkoa iruditzen zaigu datu horiek eguneratzea. Baina eskuragarriagoa izateko denentzat modu digitalean sortzea izango zen gure proposamena (Q-r kode baten bidez)
- Ikusi dugu ere, "Ambre"-rako bidean, sasiak ez daudela moztuta eta bertan dauden esrlekuak eta paperontziak erabilezinak egiten direla. Gainera, honek arrisku handia sortzen du su baten aurrean. Sugarrak erraz zabalduko ziren eta kalte handia izango zen igurumenerako.
- Gure eskola barruko berdeguneak aztertzen, landare inbaditzaile bat genuen (Cortaderra Selloana) eta desagerrarazi dugu. Ermuko leku batzuetan ere ikusi ditugu landare hauek (Berano txikiruntz dagoen bidean eta San Lorentzoko zubitik pasa ondoren) Oso kaltegarriak direla ingurumenerako eta oso azkar zabaltzen direlako: hauek desagerraraztea izango zen gure proposamena.
- Beste arazo bat ere ikusi dugu; hau da, Ermuan berdegune gero eta gutxiago daudela eraikin gehiegi egiten direlako (etxebizitzak batez ere) eta pentsatzen dugu beharrezkoa dela mantentzea daudenak eta eraikinak egitea berdeguneak errespetatuz.